

# Ze garrantzia du zuretzat txukuntasunak?



Batzuentzat dena txukun eta ondo antolatuta izateak aparteko balioa dauka, eta bizimodua errazago eramaten laguntzen die. Eta zu nolakoa zara txukuntasun-kontuetan? Gai hau aitzakia hartuta, ariketa hauek proposatzen dizkizugu:

Bi taldetan banatuta irratsaioaren atala bana entzun eta ondoren jasotako informazioa beste taldeko bati azaldu. Txukuntasunari loturiko lexikoa: Testua hitz egokiekin osatu. Zer garrantzia dauka zuretzat txukuntasunak? Taldean erabaki zein den txukunena.

## Entzun eta kontatu

Entzun zer dioen Maitanek txukuntZEN zerbitzuari buruz irratsaioa atal honetan. Ondoren, kontatu entzun duzuna (zeure hitzekin) beste taldeko lagun bati. Jarraian datozen atalen erantzunak zure kideak kontatuko dizun atalekoak dira. Entzun arretaz ikaskideari eta osatu erantzunak.

### A Taldea

<https://labur.eus/eq1A6>



1. Maitanek egin al du jada negutik udarako armairu-aldaketa?

2. Armairu-aldaketa egitean Maitanek gauza asko ateratzen al ditu?

2. Noiz egiten ditu Maitanek armairu-aldaketa nagusienak?

4. Txukunketa egitean zer arau erabili beharko genuke?

### B Taldea

<https://labur.eus/CjRRE>



1. Zergatik jarri zion Maitanek txukuntzen izena zerbitzu honi?

2. Zer lotura du txukuntasunak edo ordenak ZEN filosofiarekin?

3. Zer eskaintzen du Maitanek zerbitzu honen bidez?

4. Etxe-aldaketa garai aproposa izan daiteke txukunketa egiteko. Zergatik?

## Hiztegia txukuntzen

Beheko testuan Maitanek eskaintzen dituen zerbitzuak azaltzen ditu. Txukuntzen.com web-orrialdekoak dira, pixka bat moldatuta. Osa itzazu, dagokion hitz egokia jarrita.



- |   |  |  |  |   |   |
|---|--|--|--|---|---|
| (1)<br>nahasian egotea<br>txukun-txukun egotea<br>nahaspilan egotea | (2)<br>zikinkeria<br>antolaketa<br>nahaste-borrastea | (3)<br>oso txukun<br>hankaz gora<br>Antolatuta | (4)<br>zikinkeria<br>txukuntasuna<br>nahaspila | (5)<br>nahaspila<br>antolaketa<br>Garbitasuna | (6)<br>hankaz gora<br>pilaketan<br>txukunduta |
|---|--|--|--|---|---|

**txukuntzen**

### Etxeak

Zure ingurua 1 gustatzen bazaizu, baina arrazoi ezberdinengatik ordena eta 2 bigarren mailan utzi badituzu... Edo zure armairuko gauzak aspaldian 3 daudela konturatuz gero... Ez zaitez larritu, behar duzun guztia txukundu dezaket zure partez eta nahiago baduzu, elkarrekin txukundu dezakegu oinarritzko printzipio eta baliabide batzuk erakusten dizkizudan bitartean. Izan ere, horiek dira 4 denbora luzez mantentzen lagunduko dizutenak.

### Garajeak eta trastelekuak

Gure garajeetan eta trasteleketan izugarrizko 5 egoten da askotan. Bertan gure gauzak pilatzen joaten gara eta bertan zer daukagun ere ahaztu egiten zaigu. Bertatik zerbait behar dugunean eta aurkitzeko gai ez garenean konturatzen gara nola dagoen trastelekua. Behar ditugun horiek 6 izaten ditugu askotan, eta behar ditugunak ez dakigu non dauden. Utz iezadazu 7 antolatzen eta behar duzuna segituan aurkituko duzu.

### Etxe-aldaketak

Etxe-aldaketa bat gure bizitzan izan daitekeen momenturik larrienetakoa da edonorentzat. Nola edo hala, etxe-aldaketa batek denbora eta 8 on bat egin beharra suposatzen du beti. Etxeko zenbait txokotan 9 pilatzen da, adibidez, sukaldean, eta ez dakigu garbitzen nondik hasi ere. Nire laguntzarekin prozesu hau askoz eramangarriagoa egingo zaizula ziurtatzen dizut.

- |  |  |  |
|--|--|--|
| (7)<br>txukundade<br>zikinkeria hori<br>nahaspila hori | (8)<br>txukunketa-lan<br>nahaspila<br>zikinkeria | (9)<br>garbitasuna<br>nahaspila<br>zikinkeria asko |
|--|--|--|



## Zer garrantzia du txukuntasunak zuretzat?

Maitanerentzat txukuntasunak balio handia dauka. Eta zuretzat? Jarri taldearekin eta komentatu ondorengo galdera hauek. Erabaki bukatzean zein den taldeko txukunena.

\*Arropa-armairua antolatzeko aholkuak behar badituzu, joan Maitaneren blogera, ideia interesgarriak aurkituko dituzu bertan.

1. Armairua urtaroeekin batera txukuntzeko ohiturarik baduzu? Gordetzen dituzu aurreko urtaroko arropak beste lekuk baten?  
Zenbat arropa daude zure armairuan azken urtean inoiz jantzi gabe?
2. Ba al dago zuen etxean ganbara, trasteleku edo antzeko lekurik erabilgarri ez diren gauzak gordetzeko?  
Zerrendatu zure trastelekuan gordeta dituzun 5 gauza.
3. Gogoratzen al zara non dituzun titulu eta bestelako paper ofizialak? Guztiak batera dituzu ala sakabanatuta daude? Nola antolatzen dituzu?
4. Ikastolako lanik gordetzen al duzu oraindik ala denak San Juan suan erre zenituen?
5. Aspaldian irakurri zenuen liburu eder hura irakurri nahi duzu berriro. Berehala aurkitzeko gai izango zara?
6. Eta sukaldea nola duzu antolatuta? Azaldu zenbat armairu eta tiradera dauden bertan eta zer gordetzen den bakoitzean?

## Erantzunak

### Etxeak

Zure ingurua (txukun-txukun egotea) gustatzen bazaizu, baina arrazoi ezberdinengatik ordena eta (antolaketa) bigarren mailan utzi badituzu... Edo zure armairuko gauzak aspaldian (hankaz gora) daudela konturatuz gero... Ez zaitez larritu, behar duzun guztia txukundu dezaket zure partez eta nahiago baduzu, elkarrekin txukundu dezakegu oinarritzko printzipio eta baliabide batzuk erakusten dizkizudan bitartean. Izan ere, horiek dira (txukuntasuna) denbora luzez mantentzen lagunduko dizutenak.

### Garajeak eta trastelekuak

Gure garajeetan eta trastelekuetan izugarritzko (nahaspila) egoten da askotan. Bertan gure gauzak pilatzen joaten gara eta bertan zer daukagun ere ahaztu egiten zaigu. Bertatik zerbait behar dugunean eta aurkitzeko gai ez garenean konturatzen gara nola dagoen trastelekua. Behar ditugun horiek (hankaz gora) izaten ditugu askotan, eta behar ditugunak ez dakigu non dauden. Utz iezadazu (nahaspila hori) antolatzen eta behar duzuna segituan aurkituko duzu.

### Etxe-aldaketak

Etxe-aldaketa bat gure bizitzan izan daitekeen momenturik larrienetakoa da edonorentzat. Nola edo hala, etxe-aldaketa batek denbora eta (txukunketa-lan) on bat egin beharra suposatzen du beti. Etxeko zenbait txokotan (zikinkeria asko) pilatzen da, adibidez, sukaldean, eta ez dakigu garbitzen nondik hasi ere. Nire laguntzarekin prozesu hau askoz eramangarriagoa egingo zaizula ziurtatzen dizut.

### Entzun eta kontatu

1. Maitanek egin al du jada negutik udarako armairu-aldaketa?

(Ez, oraindik horretan dabil)

2. Armairu-aldaketa egitean Maitanek gauza asko ateratzen al ditu?

(Ez. Modu arduratsuan kontsumitzen duenez ez dauka horretarako ohitura handirik)

2. Noiz egiten ditu Maitanek armairu-aldaketa nagusienak?

(Bat, maiatzaren bukaeran eta bestea, urriaren bukaera eta arazoaren hasiera-bitartean)

4. Txukunketa egitean zer arau erabili beharko genuke?

(Gure ondoan benetan erabilgarria eta gustukoa dugun hori edukitzea)

1. Zergatik jarri zion Maitanek txukuntzen izena zerbitzu honi?

(Bera beti txukuntzen ibiltzen delako)

2. Zer lotura du txukuntasunak edo ordenak ZEN filosofiarekin?

(Ordenak ZEN filosofiak bezala lasaitasuna eta oreka eman behar digulako, ongizatea azken finean)

3. Zer eskaintzen du Maitanek zerbitzu honen bidez?

(Batetik, bezeroaren espazioak txukundu eta antolatzen ditu eta bestetik, bezeroak espazio horiek bere kasa antolatzeko jarraibide batzuk ematen ditu)

4. Etxe-aldaketa garai aproposa izan daiteke txukunketa egiteko. Zergatik?

(Garai horretan gure bizitzako etapa berri bat hasten dugulako, eta hori baliatu behar da garbiketa egiteko)

## Transkripzioak

**KAZETARIA 1.-** Maitane Ormazabal, TxukuntZEN zerbitzua eskaintzen duzu zuk, baina azken ZEN hori azpimarratu egiten duzu, nolabait Z hizki larriz idatzita. Badauka ZEN filosofiarekin loturarik?

**MAITANE ORMAZABAL.-** Bai.

**KAZETARIA 1.-** Badago hitz-joko bat hor?

**MAITANE ORMAZABAL.-** Bai. Hitz-jokoa da; horrexegatik(an) dago jarrita modu horretara. Egia esan, TxukuntZEN izena ba, ni beti txukuntzen egoten naizelako, oso erraza izan zen niretzako txukuntzen aurkitzea. Baina egia da askotan ordena perfekzioarekin eta oso lotuta egoten dela. Eta nolabait ere nik adierazten diodana jendeari, niregana gerturazten denari, bezeroari, ordenak guri lasaitasuna eman behar digula, oreka eman behar digula, eta azkenean ba ZEN filosofia honek ere beti lasaitasun bat dakar, ez? Orduan izango litzateke txukun egotetik ZEN lortuko zenuke? Hau da, ordenatik lasaitasuna edo oreka, ongizatea, nolabait ere.

**KAZETARIA 1.-** Zuk zer egiten duzu? Etxea txukundu edo etxea txukuntzeko pautak eman, eta guk txukundu beharko dugu?

**MAITANE ORMAZABAL.-** Bi gauzak. Nik egiten dudana, normalki izaten da, gatazka bat edo arazoren bat dagoenean, txukundu egiten dut, bezeroarekin bat momentu batzuetan. Bereziki inporta zaidana da konpondu, eta bezero horrek jakin dezan hurrengo batetarako nola konpondu dezakeen bere kabuz, bai, ohiturak hartu, hartu ditzan. Horrexegatik(an) momentu batzuetan espazio bat konpondu dezakegu, txukundu dezakegu eta ondoren beraiek, bere kabuz, hasten dira beste guztiak konpontzen.

**KAZETARIA 1.-** Ezagutzen dituzu etxe ordenatu zikinak edo etxe garbi desordenatuak?

**MAITANE ORMAZABAL.-** Nik beti esaten dut garbitasuna ordenarekin bat datorrela. Ordenaren barruan dago antolaketa-sistema bat, garbiketa bat, eta baita ere estetika-kontu bat, ez? apainketarena.

**KAZETARIA 2.** Hor garrantzitsuena hala ere da, Maitane da etxe batean bizi diren guztiak pautak berak segitzea.

**MAITANE ORMAZABAL.** Hori da. Irizpide berdinak, nik esaten dut normalki. Orokorrean egoten diren arazorik handienak konpartitutako espazioetan sortzen dira, bai etxeetan eta baita ere bulegoetan. Bulegoetan egia da, azkenean, irizpideak nolabait ere bulegoko enpresak edo jartzen ez baldin baditu, ba langileek bertan jarri beharko lituzketela. Baina arazoa etorriko litzateke konpartitzen diren espazioetan, hau da, artxibotegietan...

**KAZETARIA 1.** Bai.

**MAITANE ORMAZABAL.** ...edo agian egongeletan, era horretako gauzetan.

**KAZETARIA 1.-** TxukuntZEN.com atarian sartu gara, Maitane, eta ikusi dugu zure zerbitzua mudantzatarako eskaintzen duzula., herentzia-kasuetan, espazio-antolamenduak eta bulegoak. E, beno, mudantza bada ez?, garbiketa egiteko garai proposa?

**MAITANE ORMAZABAL.-** Dagoen momenturik proposena izango litzateke. Etxe-aldaketa batek, normalki zure bizitzako etapa batekin bukatu eta beste bat hasteko garaia bezala izango litzateke. Orduan, normalki etapa bital horiek aprobetxatu egin behar dira garbiketarako egiteko.

**OFF AHOTSA.** Euskadi Irratia!

**KAZETARIA 1.** Maitane Ormazabal. Kaixo, arratsalde on.

**MAITANE ORMAZABAL.** Kaixo, arratsalde on.

**KAZETARIA 1.** Negutik udarako armairu-aldaketa zuk egin al duzu jada?

**MAITANE ORMAZABAL.** Hortxe nabil. Ez dago oso erraza. Azken egunetan egiten duen eguraldi-aldaketa honekin ni neronek... Nahiko aldrebes nabil.

**KAZETARIA 1.** Bai. Gainera behin armairu-aldaketa egindakoan, ez?, badirudi ezin dela atzera egin.

**MAITANE ORMAZABAL.** E, nik esango nizuke, ondo antolatua egonez gero, atzera egin daitekeela.

**KAZETARIA 1.** A bai?

**MAITANE ORMAZABAL.** Bai, noski!

**KAZETARIA 1.** A, hor dago trukua orduan, antolakuntzan.

**MAITANE ORMAZABAL.** Hortxe dago trukua (trikimailua)

**KAZETARIA 1.** Gauza asko ateratzen duzu armairu-aldaketa egiten duzunean? Armairutik atera, oparitu, birziklatzera bota?

**MAITANE ORMAZABAL.** Nik ez. Normalean kontsumo arduratsuen inguruan beti ibiltzen naiz, eta egian esan, ondo pentsatzen dut zer daukadan armairuan. Berez ez daukat ohitura handirik. Baina esan dezaket nire bezeroek, normalean, dezente ateratzen dutela.

**KAZETARIA 2.** Zer egiten dituzu? Armairu-aldaketa bi, bat orain eta bestea udazkenean, ala, ala gehiagotan egitea ere komeni da, Maitane?

**MAITANE ORMAZABAL.** Nik esango nuke bi izaten direla nagusienak. Nolabait ere, orain, maiatzaren bukaeran bat izango litzateke garrantzitsua, nahiz eta gerora ekainaren erdialdean nik hor ateratzen ditut, bai bikini, bai jantzi freskoagoak nolabait ere. Eta gerora bestea izango zen urriaren bukaera, azaroaren hasieran, eta berriz ere beste bat txikiagoa abenduaren erdialdean.

**KAZETARIA 1.** Ui, ama, hau moda-kontuetan bezala da, ez? Lehen bi denboraldi ziren, eta orain nini-kapsulak edo egiten dituzte, eta armairu-aldaketan ere berdin.

**KAZETARIA 2.** Maiatzekoa eta urrikoa, horiek potenteak (handiak). Eta gero, ekainean eta abenduan, ba txikixekoak.

**MAITANE ORMAZABAL.** Hori da. Eta horregatik da garrantzitsu handia egiten duzun momentuan gerora egiten den txiki hori nahiko eskura izatea.

**KAZETARIA 1.** Eta zein da horretarako erabili beharko genukeen araua? Badago arauen bat? Azken hilabetetan erabili ez duguna, bota; edo antzeko bi prenda baditugu, bat fuera!; edo hamar urte baino gehiago duena, kanpora!

**MAITANE ORMAZABAL.** Nik erabiltzen dudana esaldia izaten da «eduki ezazu zurekin eta zure ondoan, zure etxean edo bulegoan, bereziki etxean, erabilgarri zaizuna eta gustuko duzun hori». Bai? Hortik aurrera bakoitzak egin ditzala egokien iruditzen zaizkion galderak. Baina arazoren bat edukiz gero armairuarekin, nolabait ere dudak baldin badauzkazu, bai, gustuko duzuna, benetan gustuko duzuna eta erabat erabilgarri zaizuna. Eta dudaren bat edukiz gero, jantzi, ea nola sentitzen zaren